



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2023/03

SESIÓN Nº: 2023/03

EGUNA: 2023/03/30

DÍA: 30/03/2023

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE INICIO: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:35

HORA DE FINALIZACIÓN: 19:35

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa

LUGAR: Salón de Plenos de la casa consistorial

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

Grupo municipal Debarren Ahotsa

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambroneru Alkorta

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Grupo municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambroneru Alkorta

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

Secretario: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

Gilen Garcia: Arratsaldeon eta ongi etorri denoi.

1.- ALKATETZA DEKRETIEN KONTROLA.

Gilen Garcia: Ba al dago ekarpenik, iradokizunik edo galderarik?

Pedro Bengoetxea: Bai, 68. «Gipuzkoako Foru Aldundiko degradatutako eremuak leheneratzeko dirulaguntza eskaera.»

Gilen Garcia: Gaizki ez banabil, hemen degradazioaz hitz egiten duenean, azaltzen denez, da eremu degradatuak berreskuratu eta leheneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektuak eta jarduketak gauzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia.

Arronamendiko landarediaren egungo egoera ikusita, nabarmen hobetu daiteke, Euskal Kostaldeko Geoparkeak landare inbaditzaileak desagerrarazteko eta bertako espeziekin landatzeko lehen esku-hartzearen ondoren.

Inguruko landarediaren egoera ekologikoa are gehiago hobetzeko proiektua aztertu da. Proiektu hori, hein handi batean, biotopo babestua zaintzeaz arduratzen den Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak egin duela.

Eta horren araberako ebazpena da.

Pedro Bengoetxea: Baina, zer motako lurra dira? Publikoak? Pribatuak?

Gilen Garcia: Oraintxe bertan zehatz-mehatz ezin dizut esan, baina pentsatzen dut Aldundiko lurra direla

Bada beste galderarik?

Iñigo Cambronero: Ez

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

2.- VIALINE ENPRESAK KUDEATUTAKO

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.

Gilen Garcia: Buenas tardes, y bienvenidos y bienvenidas.

1.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

Gilen Garcia: ¿Tenéis aportaciones, sugerencias o preguntas?

Pedro Bengoetxea: Si, el 68 «Gipuzkoako Foru Aldundiko degradatutako eremuak leheneratzeko dirulaguntza eskaera.»

Gilen Garcia: Si no me equivoco, aquí cuando habla de degradación, se explica que se trata de las bases reguladoras y la convocatoria 2023 de las subvenciones para la ejecución de proyectos y actuaciones de recuperación y restauración de áreas degradadas y de mejora de las infraestructuras verdes y de la resiliencia.

Visto el estado actual de la vegetación de zona de Arronamendi que es considerablemente mejorable, tras una primera intervención de eliminación de invasoras y plantación de especies autóctonas por parte del Geoparque de la Costa Vasca.

Visto el proyecto para mejorar aún más la situación ecológica de la vegetación de la zona, realizado en gran parte por el técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa, encargado de la salvaguarda del biotopo protegido.

Y se trata de una resolución al respecto.

Pedro Bengoetxea: Pero, ¿de qué clase de terrenos de trata? ¿Públicos? ¿Privados?

Gilen Garcia: Ahora mismo no te lo puedo decir exactamente, pero pienso que son terrenos de la Diputación

¿Hay alguna otra pregunta?

Iñigo Cambronero: No

El Pleno queda enterado.

2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA



2023KO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.

Gilen Garcia: Ba al dago galderarik edo ekarpenik?

Ez da ez galderarik ez ekarpenik egiten.

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

3.-ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, DEBAKO BAKE EPAILEAREN IZENDAPENA.

Gilen Garcia: Kasu honetan deialdia egin zen, eta pertsona bakarra aurkeztu zen, ordezkorik ez, hortaz gaurko bileran titularra bakarrik onartuko genuke eta, aurrerantzean, ordezko hori bilatzeko deialdi berri bat egin beharko dugu eta gai hau berriro ere hona ekarri beharko dugu, baina, bitartean, epailea izango genuke.

Pedro Bengoetxea: Zein da, lehengoa?

Gilen Garcia: Bai, aurkeztu den pertsona bakarra Leire Eizagirre da, gaur egungo Bake Epailea.

Bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, erabakitzen du:

Lehen.- Leire Eizagirre Jauregi (72579076T) hautatzea Debako Bake Epaile titularra izateko.

Bigarren.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari proposatzea Leire Eizagirre Jauregi izendatzea Debako Bake Epaile titularra.

Hirugarren.- Deialdi berri bat egitea Debako ordezkari Bake Epaile hautatzeko.

SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS POR LA EMPRESA VIALINE EN 2023.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna pregunta o aportación?

No se formulan preguntas ni aportaciones.

El Pleno queda enterado.

3.- APROBAR, SI PROCEDE, EL NOMBRAMIENTO DE LA JUEZA DE PAZ DE DEBA.

Gilen Garcia: En este caso, se hizo la convocatoria, y solo se presentó una persona, no hay suplente, por lo que en la reunión de hoy sólo aceptaríamos a la titular y, más adelante, tendremos que hacer una nueva convocatoria para buscar a ese sustituto, y volver a traer este tema aquí, pero mientras tanto tendríamos jueza.

Pedro Bengoetxea: ¿Quién es? ¿La de antes?

Gilen Garcia: Si, la única persona que se ha presentado es Leire Eizagirre, la Jueza de Paz actual.

Procedemos a la votación. ¿Voto a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Elegir a Leire Eizagirre Jauregi (72579076T) para el desempeño del cargo de Jueza de Paz titular de Deba.

Segundo.- Proponer a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País el nombramiento de Leire Eizagirre Jauregi como Jueza de Paz titular de Deba.

Tercero.- Realizar una nueva convocatoria para la elección del Juez o de la Jueza de Paz

4.-ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2020KO ETA 2022KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOEN ALDAKETA.

Gilen Garcia: Aritz, zurea da hitza.

Artiz Larrañaga: Bai Barne Erregimeneko Batzordean, eta bai sindikatuekin negoziazio mahaian, gai hau jorratu genuen.

2020ko azaroan urte horretako lan eskaintza publikoa onartu genuen eta bertan hiru lanpostu onartu genuen: diru biltzailearena, brigada buruarena eta udaltzain buruarena.

Bestalde, 2022ko abenduan onartu genuen Kirol eta Gazteriako teknikariarena eta zerbitzu anitzeko langilearena.

Udal lanpostuen egoera aintzat hartuta eta, gero Jose Luisek azalduko dituen beste gai batzuk aintzat hartuta, proposatu genuen diru biltzailearen lanpostua betetzeko prozesua atzeratzea, zerbitzu anitzeko langilearena betetzeko prozesua aurreratzea. Horrela, 2020an onartu genuen diru biltzailearena 2022ko lan eskaintzan sartuko litzateke, eta 2020an onartu genuena 2022koan sartzea.

Horrek suposatzen du, ba 2023ko azaroaren amaierako egin egon beharko direla bai brigada buruaren lanpostua betetzeko prozesua, baita zerbitzu anitzeko langilearena, eta, horrela, 2020ko lan eskaintza publikoko hiru lanpostuak beteta geratuko lirateke. Orain dela gutxi bete dugu udaltzain buruarena, eta beste biak beteko dira 2023an zehar.

Eta hori izango zen gaur Plenora ekarri dugun proposamena.

Jose Luis Salaberri: Aritzek aipatu dituen antolakuntzako arazoiaz gain, 2020ko lan eskaintza publikoa gauzatzeko arazo bat ere

sustituto o sustituta de Deba.

4.- APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE LAS OFERTAS DE EMPLEO PÚBLICO 2020 Y 2022.

Gilen Garcia: Aritz, tienes la palabra.

Artiz Larrañaga: Este tema se ha tratado tanto en la Comisión de Régimen Interior como en la Mesa de Negociación con los sindicatos.

En noviembre de 2020 aprobamos la oferta pública de empleo de ese año y en ella aprobamos tres plazas: la de recaudador o recaudadora, la de jefatura de brigada y la de jefatura de policía local.

Por otra parte, en diciembre de 2022 aprobamos las plazas de técnico o técnica de Deportes y Juventud, y la de operario u operaria de servicios múltiples.

Teniendo en cuenta la situación de los puestos de trabajo municipales, y otras cuestiones que luego comentará José Luis, propusimos posponer el proceso para cubrir el puesto de recaudado o recaudaroar, adelantar el de operario u operaria de servicios múltiples. De esta manera, la plaza de recaudador o recaudadora, que aprobamos en 2020, se integraría en la oferta de empleo de 2022, y la que aprobamos en 2020 se incluiría en la de 2022.

Esto supone que para finales de noviembre de 2023 habrá que haber realizado tanto el proceso de cobertura del puesto de jefatura de brigada como el de operario u operaria de servicios múltiples, quedando cubiertas las tres plazas de la oferta de empleo público de 2020. Recientemente hemos cubierto la plaza de jefe de la Policía Local, y los otros dos se cubrirán a lo largo de 2023.

Y esa sería la propuesta que hemos traído al Pleno hoy.

Jose Luis Salaberri: Además de las razones organizativas que ha comentado Aritz, tenemos un problema de ejecución de la OPE 2020. De



badugu. Izan ere, hautaketa prozesuetako epaimahaiak osatzen duten pertsonak karrerako funtzionarioak edo kontratupeko langile finkoak izan behar dira, eta, horrez gain, plazarako eskatzen den titulazio maila bera edo altuagoa izan behar dute, eta epaimahaikideen erdiek, eskatzen den titulazioaren arlokoa izan behar dute.

Gaur egun ditugun plantillan ez daude bi baldintza horiek betetzen dituzten pertsonak, eta herri administrazio guztiak egonkortze prozesuetan murgilduta gaudenez, zaila aurreikusten da beste administrazioetako langileekin osatzea diru biltzailearen prozesurako behar den epaimahaia.

Aldaketa horrekin denbora irabazten dugu eta egonkortze prozesuak amaituta egongo direnez, errazago osatu dezakegu epaimahaia, bai bertako langileekin, bai, behar izanez gero, beste administrazioetako langileekin.

Gilen Garcia: Oso ondo, ekarpenik ez badaude, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2020ko eta 2022ko lan eskaintza publikoen horrela aldatzea:

1.- 2020ko enplegu publikoaren eskaintzatik diru biltzailea lanpostua kendu, eta horren ordez, zerbitzu anitzeko langilea lanpostua sartu.

2.- 2022ko enplegu publikoaren eskaintzatik zerbitzu anitzeko langilea lanpostua kendu, eta horren ordez, diru biltzailea lanpostua sartu.

Aldaketa horien ondoren, enplegu publikorako eskaintzak horrela geratuko dira:

hecho, los tribunales de selección deben estar compuestos por personas funcionarias de carrera o personal laboral fijo, con un nivel de titulación igual o superior al exigido para la plaza, y la mitad de sus miembros deberán estar una titulación del mismo ramo que la requerida.

En la plantilla actual no hay personas que cumplan ambos requisitos y dado que todas las administraciones públicas estamos inmersas en procesos de estabilización, se prevé difícil completar el tribunal necesario para el proceso de recaudador o recaudadora. con personal de otras administraciones.

Con esta modificación ganamos tiempo, y como los procesos de estabilización estarán finalizados, será más fácil la composición del tribunal, tanto con personal propio como, en su caso, con personal de otras administraciones.

Gilen Garcia: Muy bien, si no hay aportaciones votaremos. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba la modificación de las ofertas públicas de empleo 2020 y 2022 en los siguientes términos:

1.- Sustituir el puesto de recaudador o recaudadora de la oferta de empleo público de 2020 por el puesto de operario u operaria de servicios múltiples.

2.- Sustituir de la oferta de empleo público de 2022 la plaza de operario u operaria de servicios múltiples por la de recaudador o recaudadora.

Tras estas modificaciones, las ofertas de empleo público quedarán de la siguiente manera:

2020ko enplegu publikorako eskaintza:

- Udaltzain burua (gauzatuta).
- Brigada burua.
- Zerbitzu anitzeko langilea.

2022ko enplegu publikorako eskaintza:

- Kirol eta Gazteriako teknikaria.
- Diru biltzailea

5.-ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, DEBAKO UDALEKO 01/2023 KREDITU ALDAKETA.

Gilen Garcia: Itziar, zurea da hitza.

Itziar Irizar: Asteartean Ogasuneko Batzordean begiratu genuen kreditu aldaketa hau. Partida batzuk aurrekontuak egiterakoan aurreikusi ziren, adibidez, Simon Berasaluze plazako lokalen obra egiteko; Osio sarrerako obra egiteko diru gehiago behako zela, eta hor ere dirua jarri da; eta hondartzako lokalaren obra egitea ere aipatu ziren. Eta gero daude beste batzuk eguneratu egin direnak, adibidez sorosleen partida, ikusita soldatzen egokitzapenak eta abar, azpiegituren alokairua eta Historia Aurreko Bailaran, falta den zati bat.

Kreditu aldaketa honetan, guztira, 879.115,00 euro dira eta horiek finantzatzeko erabiliko diren baliabideak litzateke, alde batetik sartu diren partida berri batzuk, Luzaroko patioarentzako diru laguntza, eta Historia Aurreko Bailararako Itsaspen diru laguntza. Horrela altxortegiko soberakinetatik erabili beharko dena 782.419,00 euro lirateke.

Pedro Bengoetxea: Lehenik eta behin, nire harridura adierazi behar dut; izan ere, Ogasun Batzordean ez genuen bozkatu, eta, ez dut uste, irizpena aho batez onartu zenik, eta harritu egin nau, irizpenean aho batez onartu zela adierazten duelako.

Miren Esnal: Nik Osoko Bilkurara pasatzea ulertu nuen. Ez zen bozketarik egin.

Oferta de empleo público 2020:

- Jefatura de la Policía Municipal (ejecutado).
- Jefatura de brigada.
- Operario u operaria de servicios múltiples.

Oferta de empleo público 2022:

- Técnico o técnica de Deportes y Juventud.
- Recaudador o recaudadora

5.- APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS 01/2023 DE DEBAKO UDALA.

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: Esta modificación de créditos se trató en la Comisión de Hacienda este martes. Algunas partidas se previeron a la hora de confeccionar el presupuesto, por ejemplo, para la ejecución de la obra de los locales de la plaza Simón Berasaluze; para la obra de la entrada de Osio, que iba a necesitar más dinero y ahí también se ha puesto dinero; y se habló de la obra del local de la playa. Y luego hay otras partidas que se han actualizado, como la partida para socorristas, a la vista de las adaptaciones de los sueldos, etc., el alquiler de las infraestructuras, y la parte que falta para el Valle de la Prehistoria.

El importe total de esta modificación de crédito asciende a 879.115,00 euros, y los recursos destinados a su financiación son, por un lado, nuevas partidas que se ha incluido: la subvención por el patio de Luzar, y la subvención de Itsaspen para el Valle Valle de la Prehistoria. De esta forma, el remanente de tesorería a utilizar sería de 782.419,00 euros.

Pedro Bengoetxea: Primero tengo que manifestar mi sorpresa porque en la Comisión de Hacienda ni votamos, ni creo que el dictamen se aprobó por unanimidad, y me ha sorprendido porque en el dictamen pone que se aprobó por unanimidad.

Miren Esnal: Yo entendí pasar a Pleno. No hubo votación.



Pedro Bengoetxea: Nik kexa batzuk azaldu nituen, eta gero justifikatuko dugu, baina, esan genuen, lehenik, oso potoloa zela eta ez genuela osorik irakurri. Baita, aurrekontuak egiterakoan zorrotzago jokatu behar dugula, eta ez hilero-hilero aldatzen ibiltzek beharrik ez izateko. Orain bi hilabete aurkeztu zen aurrekontu bat, eta orain horrela ibiltzea, zorrotzasunaren falta dela uste dugula.

Kexa horiek ez dira agertzen eta, gero, "por unanimidad" jartzea, ba harritu gaitu. Nik garbi utzi nuen gero bilera genuela eta aztertuko genuela gaia, eta sorpresa hari azaldu nahi nuen, gero justifikatuko dugu gure botoa.

Iñigo Cambronero: Guk, gauza bera azpimarratuz, ezustea hartu dugu; izan ere, duela bi hilabete onartu den aurrekontu batek horrelako doikuntzak jasatea, gutxienez, lekuz kanpo harrapatzen zaitu.

Zentzu horretan, ez dugu ezezik bozkatuko, badakigulako aurrekontu horretan partida batzuk aurreikusita zeudela. Guk ez genuen onartu aurrekontu hori, baina garrantzitsuak direla eta gauzatu egin behar direla uste dugu, baina, era berean, onartu ezin diren beste gutxi gorabeherako kalkulu batzuk daudela uste dugu. Kontu horiek kalkulatzekoan finago aritu behar da, eta zuhurrago eta zehatzagoa izan behar da. Horregatik, printzipioz, gu abstenitu egingo gara.

Enrique Salgado: Gure botoa eman aurretik, zenbait ohar egin nahiko genituzke kreditu-aldaketaren zenbatekoari eta edukiari buruz.

1.- Aurtengo otsailaren 16an, 2023ko aurrekontuak onartu ziren Osoko Bilkuran, EH Bilduren eta Debarren Ahotsak-en arteko akordio baten ondoren. Akordio horren puntuetako bat langileen kostuak murrizteko

Pedro Bengoetxea: Yo expuse una serie de quejas que luego justificaremos, pero primero dijimos que era muy voluminoso y que no habíamos leído en su totalidad. También que debemos ser más rigurosos en la elaboración de los presupuestos para no tener que andar modificándolos mensualmente. Se presentó un presupuesto hace dos meses, y ahora andar así, creemos que es una falta de rigor.

Estas quejas no figuran, y luego poner "por unanimidad" nos ha sorprendido. Yo dejé claro que luego teníamos reunión en la que íbamos a tratar el tema y quería explicar mi sorpresa, luego justificaremos nuestro voto.

Iñigo Cambronero: Nosotros, incidiendo un poco en lo mismo, nos hemos llevado sorpresa porque un presupuesto que se ha aprobado hace dos meses que sufra este tipo de ajustes, cuanto menos, te pillas descolocado.

En ese sentido no vamos a votar que no, porque sabemos que hay partidas que estaban previstas en ese presupuesto. Nosotros no aprobamos ese presupuesto, pero creemos que son importantes y hay que llevarlas a cabo, pero también creemos que hay otra serie de cálculos de bulto que no se pueden admitir. Hay que hilar más fino y ser más previsor y más exhaustivo en el cálculo de esas cuentas. Por eso, en principio, nosotros nos vamos a abstener.

Enrique Salgado: Antes de dar nuestro voto nos gustaría hacer una serie de apreciaciones respecto al importe de la modificación de créditos propuesta y su contenido.

1-El 16 de febrero de este año, fueron aprobados en el Pleno los presupuestos de 2023, después de un acuerdo entre EH Bildu y Debarren Ahotsa, donde uno de los puntos era la necesidad de reducción de los costes de

beharra zen.

Gaurko Osoko Bilkuran kredituen aldaketa bat aurkeztu da, zenbateko oso esanguratsu batekin, non ezaugarri ezberdineko partida batzuk agertzen diren.

Kasu batzuetan memorian agertzen ziren kontzeptuak dira, beste batzuetan partida berriei buruzkoak dira, eta, azkenik, batzuk oso esanguratsuak, jada onartutako aurrekontuari egindako gehikuntzei dagozkie.

Garrantzitsuenetako bat Osioko urbanizazio-proiektuarena da, 500.000 euro inguruko kostua duena. Kasu honetan, proiektua ezarritako aurrekonturik gabe garatu da, eta, bukaeran izan da 248.000 euroko kreditu-aldaketa sartu denean behin betiko kostuari aurre egin ahal izateko. Eremu horretarako sarbidea hobetu dela uste badugu ere, gure ustez, inbertsioaren zenbateko handia ikusita, gehiago eztabaidatu behar zela talde politikoen artean.

2.- Jakin badakigu egunerokoak Udalaren inbertsio- eta gastu-beharrak markatzen dituela, baina berretsi nahi dugu aurrekontuak askoz gehiago landu behar ditugula eta zorrotzagoak izan behar dugula aldaketen zenbateko hain handia saihesteko, hasierako aurrekontua baliogabetzen dutela dirudienak.

3- Aurreko urtean ere jakinarazi genuen bezala, partida asko zehaztuta datozenaren sentzazioa dugu, baita gastatuta ere, dagokion batzordetik pasatu gabe.

4. Gure ustez, baita nire ustez ere, lan egiteko modu horrek eragiten du Ogasun Batzordeak bere eginkizuna ez betetzea, eta erabakitako partidei buruzko oniritzia eman eta partida horien ordainketa berrestea baino ez du egiten.

Batzorde horrek jasotako eskaerei buruzko aholkuak eman behar ditu, eta bere iritzia eman behar du, finantza-egoerak hala eskatuz gero, onartu beharko liratekeen eskaeren

personal.

En el pleno de hoy se presenta una modificación de créditos por un importe muy significativo, donde figuran una serie de partidas de diferentes características.

En unos casos son conceptos que figuraban en la memoria, en otros se refieren a partidas nuevas, y por último algunas muy significativas, se corresponden con ampliaciones al presupuesto ya aprobado.

Una de las más importantes es la del proyecto de urbanización de Osio, donde el coste total es del orden de 500.000 euros. En este caso se ha ido desarrollando el proyecto sin un presupuesto establecido, y ha sido al final, cuando ha habido que incluir una modificación de créditos por importe de 248.000 euros para poder hacer frente al coste definitivo. Considerando que, habiendo mejorado el acceso a dicha zona, pensamos que, dada la cifra tan importante de inversión, debería haber sido más debatida entre los grupos políticos.

2-Somos conscientes que el día a día va marcando las necesidades de inversión y gasto del Ayuntamiento, pero nos reafirmamos que tenemos que trabajar mucho más los presupuestos y ser más rigurosos para evitar un importe tan alto de modificaciones, que parece invalidan el presupuesto inicial.

3-Como ya lo trasladamos el año anterior, tenemos la sensación de que muchas partidas ya vienen determinadas, incluso gastadas, sin pasar por la comisión correspondiente.

4-A nuestro entender, y en mi opinión personal, esta forma de trabajar hace que la Comisión de Hacienda no ejerza con su función, y solamente dé el visto bueno sobre partidas ya decididas y se dedique a confirmar el pago de las mismas.

Esta Comisión debe asesorar sobre las peticiones recibidas y trasladar su opinión sobre la idoneidad de cuales aceptar en caso de que la situación financiera lo requiera, no



egokitasunari buruz, eta ez une honetan funtzionatzen ari den bezala, batzorde desberdinek proposatu dituzten aldaketak ontzat emanez.

Azkenik, adierazi behar da, onartutako aurrekontuaren eta aurkeztutako kreditu-aldaketen arabera, soberakina nabarmen murrizten dela eta ez duela etorkizuneko inbertsioetarako maniobra-tarterik uzten. Horrek esan nahi du 2024rako kostuen murrizketa handia planteatu behar dela, edo diru-sarrerak handitzea (zergen bidez), inbertitzeko aukerak izan nahi baditugu.

Gogoratu behar da Amillaga arintzea dela aukeretako bat, hainbestetan aipatu diren hirigintza-aprobetxamenduak lortzeko.

Horregatik guztiagatik, gure botoa ezin da aldekoa izan.

Itziar Irizar: Egia esan, “por unanimidad” beti jartzen da Batzordean bertan ez bada kontrakorik azaltzen, eta Batzordean inork ez zuen kontrako ezer esan. Orduan jokabide hau, iruditzen zait, ez dela zuen aldetik oso zuzena edo oso zintzoa, Batzordean gauza bat da esatea “hau egin beharko litzateke horrela”, baina, benetan ez bazaude ados eta kontra bozkatu behar baduzu, logikoena da Batzordean azaltzea horrekin ez zaudela ados, eta horrelakorik ez zen gertatu batzordean.

Kreditu aldaketen irizpenen pantillatan beti jartzen du “por unanimidad”, eta ez bada kontrakorik agertzen, beti horrela agertzen da. Ez da izan juxtu irizpen honetan konkretuki horrela jarri dutela Kontu-hartzaitetako langileek.

Hori batetik, eta, bestetik, egia da Simon Berasaluze eta Osio partidak aurreikusi zirela

como se está funcionando en estos momentos, dando por buenas las modificaciones que las diferentes comisiones han propuesto.

Por último, señalar, que, en función del presupuesto aprobado, y las modificaciones de créditos presentadas, el remanente queda reducido de forma considerable y no deja margen de maniobra para futuras inversiones, lo que conlleva a que de cara a 2024 se tenga que plantear una reducción de costes importante, o un incremento de ingresos (vía impuestos) si queremos tener posibilidades de inversión.

Recordar que una de las opciones es agilizar Amillaga para conseguir los aprovechamientos urbanísticos que tantas veces se ha comentado.

Por todo lo anterior nuestro voto no puede ser favorable.

Itziar Irizar: En realidad, si en la Comisión no se manifiesta nada en contra siempre se suele poner “por unanimidad”, y en la Comisión nadie dijo nada en contra. Entonces, me parece que esta conducta, por vuestra parte, no es muy correcta o muy honesta. Una cosa es decir en la Comisión “esto debería de hacerse así”, pero si realmente no se está de acuerdo y se va a votar en contra, lo lógico es que se manifiesta en la Comisión que no se está de acuerdo, y eso no ocurrió en la Comisión.

En las pantillas de los dictámenes de modificaciones de crédito siempre pone “por unanimidad”, y si no manifiesta lo contrario, siempre aparece así. No se trata de que el personal de la Intervención lo haya puesto así para este dictamen en concreto.

Eso por un lado, y, por otro, es cierto que las partidas de Simón Berasaluze y Osio se habían

aurrekontuak landu zirenean, eta Osion hasieran jaso zen asfaltatze moduan edo, sinpleagoa, baina txukunago gelditzeko aurrekontua igo da, eta lanak horrela egitea aurreikusita bazegoen ere, partida osoa, edo kreditua aldaketa osoa, ez genuen aurreikusi. Txukunago geldituko den esperantzan hori da proposatzen duguna, eta Batzordean ez zen aipatu horrekin ados ez zeudetenik.

Eta gainontzekoak dira, esan dudan bezala, sorosleen partida, azpiegituren alokairuena, Historia Aurreko Bailararena, uda kirola, eta euskaltegia ere, talde bat gehiago aurreikusi da aurten Deban, eta, aparte, kuota dezente igo da.

Ados nago ingresoak igo behar direla zeren gastuak azken urte eta erdian asko igo dira, eta datorren urteko aurrekontuetarako, hori aurreikusi egon beharko da, edo gastuak jaitsi edo ingresoak igo.

Gilen Garcia: Zerbait gehiago gehitu nahi duzue?

Pedro Bengoetxea: Nik ez nuen esan ezetz edo kontra nengoela. Gure kezka azaldu genuen diru asko zelako, eta nire kezka eta nire duda azaldu nuen, baina ez nuen esan zer egin behar nuen, eta garbi azaldu nuen gero bilera genuela gaia aztertzeko. Eta atzo egin genuen bilera, eta ikusi genuen onartuta zegoela, "por unanimidad" jartzen zuela.

Itziar Irizar: Ulertzen dut zuek horrela ikustea, baina, aurrekontuarekin ere berdin gertatu zen. Batzordean kontratotasunik ez bada azaltzen arraroa da gero plenoan kontra bozkatzea.

Iñigo Cambroner: Ezin dena egin da irizpen bat aurkeztu ustezko aho batez batekin bozketarik egin ez denean. Ohitu egin behar gara bozketak egitera, emaitzak jasotzera, eta, horrela, inor ez da engainatuta sentituko, eta ez dago

previsto en el momento de la elaboración de los presupuestos, y que en Osio se recogió inicialmente más simple, como asfaltado, pero se ha incrementado el presupuesto para que quedara mejor, y aunque estaba previsto que los trabajos se realizaran de esta manera, no habíamos previsto la totalidad de la partida, o de la modificación de crédito en su integridad. Esto es lo que proponemos en la esperanza de que quede mejor, y en la Comisión no se mencionó que no estuvierais de acuerdo.

Y el resto son, como he dicho, la partida de socorristas, la del alquiler de infraestructuras, del Valle de la Prehistoria, uda kirola, y también la del euskaltegi, que este año se ha previsto un grupo más en Deba, y además ha aumentado considerablemente la cuota.

Estoy de acuerdo en que hay que incrementar los ingresos porque los gastos han aumentado mucho en el último año y medio, y para los presupuestos del año que viene habrá que preverlo, o disminuir los gastos o incrementar los ingresos.

Gilen Garcia: ¿Queréis añadir algo más?

Pedro Bengoetxea: Yo no dije que no o que estaba en contra. Expusimos nuestra preocupación porque era mucho dinero, y expuse mi preocupación y mi duda, pero no dije lo que iba que hacer, y expliqué claramente que luego teníamos una reunión para tratar el tema. Y ayer celebramos la reunión y vimos que estaba aprobada y que ponía "por unanimidad".

Itziar Irizar: Entiendo que vosotros lo veáis así, pero con el presupuesto también ocurrió lo mismo. Si no hay oposición en la Comisión, resulta raro que luego se vote en contra en el Pleno.

Iñigo Cambroner: Lo que no puede hacerse es presentar un dictamen con una supuesta unanimidad cuando no ha habido votación. Nos tenemos que acostumbrar a hacer una votación, recoger los resultados, y así, nadie se siente engañado ni hay lugar a



gaizki interpretatzeko lekurik.

Ni ez nintzen bilera horretan egon, Miren egon zen, baina gaia komentatzen aritu gara, eta izan dudan sententzia da han ez zela ezer erabaki. Horregatik, guri ere, Pedrori bezala, harrigarria egiten zaigu aho batez jartzea.

Hobekuntzarako puntu gisa aipatzen dut.

Gilen Garcia: Jasota geratu da. Gauza txiki bat dela iruditu ahal da prozedurazkoa delako, baina arazoak sor ditzakeela ikusi da, eta ahal egingo gara zuzentzen, baina, agintaldi amaieran horrelakoak azaltzea ... Beno, bozkatu egingo dugu.

Aldeko bozkak? Sei. Aurkako bozkak? Bat ere ez. Abstentzioak? Zazpi

Udalbatzak, aldeko sei botorekin eta zazpi abstentzioekin, onartzen du Debako Udaleko 01/2023 kreditu aldaketa, 879.115 euroko zenbatekoa duena.

Kredituen aldaketaren kapitulukako laburpena hau da:

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa	Capítulo	Denominación	Importe
2	Ondasun arrut. eta zerbitz. erosketa	73.840,00	2	Compra de bienes corr. y de servicios	73.840,00
4	Transferentzia arruntak	39.275,00	4	Transferencias corrientes	39.275,00
6	Inbertsio errealak	766.000,00	6	Inversiones reales	766.000,00
Guztira		879.115,00	Total		879.115,00

ERABILITAKO BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa	Capítulo	Denominación	Importe
7	Kapital transferentziak	96.696,00	7	Transferencias de capital	96.696,00
8	Finantza aktiboen aldaketa (Altxortegiko gerakina)	782.419,00	8	Variación activos financieros (Remanente de tesorería)	782.419,00
Guztira		879.115,00	Total		879.115,00

malinterpretaciones, es así de simple.

Yo no estuve en esa reunión, estuvo Miren, pero hemos estado comentando el asunto y la sensación que he tenido es que allí no se decidió nada. Por eso, a nosotros también, a igual que a Pedro, nos choca que se ponga que es por unanimidad.

Lo comento como punto de mejora.

Gilen Garcia: Queda recogido. Puede parecer que es un asunto menor de carácter procedimental, pero se ha visto que puede generar problemas, e intentaremos corregirlo, pero manifestar algo así al final de la legislatura ... Buenos, vamos a votar.

¿Votos a favor? Seis. ¿Votos en contra? Ninguna. ¿Abstenciones? Siete

El Pleno, con seis votos a favor y siete abstenciones aprueba la modificación de créditos 01/2023 de Debako Udala por importe de 879.115 euros.

El resumen de la modificación de créditos por capítulos es el siguiente:

6.-ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2023RAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.

Gilen Garcia: Itziar, zurea da hitza.

Itziar Irizar: Hau ere Ogasuneko Batzordean ikusi genuen, eta aldaketak ez dira oso esanguratsuak. Batzuk Aldunditik eratorritako ajuste txiki batzuk, plusbalian kasuan; fotokopiena, langileek egin zuten proposamena; hirigintzako tasetan arazo bat zegoen expediente mota batekin, baina kontzeptua aldatzen da, ez tasa bera; hilerrian, batez ere, Itziar hilerrian, panteoietan errautesak sartzeko tasa falta zen; hondartzako zerbitzu batzuk gehitu dira. Esan bezala ez dira aldaketa esanguratsuak, batez ere eguneraketak dira.

Gilen Garcia: Ba al dago ekarpenik?

Bozkatu egingo dugu orduan. Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2023rako ordenantza fiskalen aldaketa, Finantza, Ondasun eta Kontuen Batzordearen irizpenean jasotako moduan.

7.-ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALEN ARTEKO ESPARRU-HITZARMENA.

Gilen Garcia: Itziar, zurea da hitza.

Itziar Irizar: Hau ere Ogasuneko Batzordean aztertu genuen, eta azkenean, Aldundiarekin egiten den hitzarmen bat da, udal guztietan onartuko dena, Ogasuneko lanetan informazio trukaketari buruzkoa, lana errazteko asmoz, hainbat zerbitzuetan, adibidez, Gizarte Zerbitzuetan, gaiak ataskatuta gelditzen direlako, eta lan horiek guztiak errazteko.

6.- APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA DE 2023.

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: Esto también lo vimos en la Comisión de Hacienda, y los cambios no son muy significativos. Algunos pequeños ajustes procedentes de la Diputación, en caso de plusvalía; de fotocopias, la propuesta la hizo el personal; en las tasas urbanísticas había un problema con un tipo de expediente, pero cambia el concepto, no la tasa; en el cementerio, sobre todo en el cementerio de Itziar, faltaba la tasa de depósito de cenizas en los panteones; se añaden algunos servicios de playa. Como se ha dicho, no son cambios significativos, sobre todo son actualizaciones.

Gilen Garcia: ¿Hay aportaciones?

Entonces votaremos. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba la modificación de las ordenanzas fiscales para 2023, en los términos recogidos en el dictamen de la Comisión de Hacienda, Patrimonio y especial de Cuentas.

7.- APROBAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO MARCO PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS Y LOS AYUNTAMIENTOS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA.

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: Esto también lo analizamos en la Comisión de Hacienda, y a la postre se trata de un convenio con la Diputación, que se aprobará en todos los ayuntamientos, sobre el intercambio de información en las labores de Hacienda, con el fin de facilitar el trabajo, ya que en algunos servicios, como por ejemplo, los Servicios Sociales, quedan temas atascados, y se facilitarán todos esos trabajos.



Gilen Garcia: Ez badago ekarpenik bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez onartzen du, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen arteko esparru-hitzarmena.

8.-ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, CASACAMPO GUNeko EMAKIDA. GIPUZKOAKO ITSASERTZ ZERBITZU PROBINTZIALAK JARRITAKO BALDINTZAK.

Gilen Garcia: Prozedura honetan, Cascampoko lurak Debako Udalak kudeatze aldera, kontuan hartu behar da Mutrikuko udalerriko lurak direla., eta orduan, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoaren Zuzendariordetza Nagusiak ezarritako ohiko baldintzez gain, jasotzen da Mutrikuko Udalaren oniritzia lortu behar genuela.

Mutrikuko Udalak osoko bilkuratek pasa zuen gai hori, eta onartu zuten oniritzi hori ematea, eta orain guri dagokigu Kostaseko Zerbitzuak ezarritako baldintzak onartzea.

Ez badago ekarpenik bozkatu egingo dugu. Ados?

Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, erabakitzen du berariaz onartzea Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumeneko Estatu Idazkaritzako Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiko Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoaren Zuzendariordetza Nagusiak ezarritako baldintzak eta preskripzioak

Gilen Garcia: Si no hay aportaciones, procederemos a la votación. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba el convenio marco para el intercambio de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

8.-APROBAR SI PROCEDE, LA CONCESIÓN DE LA ZONA DE CASACAMPO. LAS CONDICIONES IMPUESTAS POR EL SERVICIO PROVINCIAL DE COSTAS DE GIPUZKOA.

Gilen Garcia: En este procedimiento, a efectos de la gestión de los terrenos de Cascampo por parte del Ayuntamiento de Deba, debe tenerse en cuenta que se trata de terrenos del municipio de Mutriku, por lo que, además de las condiciones habituales establecidas por la Subdirección General de Dominio Público Marítimo Terrestre, se recoge la necesidad de obtener el visto bueno del Ayuntamiento de Mutriku.

El Ayuntamiento de Mutriku pasó este asunto por el Pleno, y aprobaron otorgar dicho visto bueno, y ahora nos corresponde aceptar las condiciones impuestas por el Servicio de Costas.

Si no hay aportaciones votaremos. ¿De acuerdo?

¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, acuerda aceptar expresamente las condiciones y prescripciones establecidas por la Subdirección General de Dominio Público Marítimo-Terrestre de la Dirección General de la Costa y el Mar de la Secretaría de Estado de Medio Ambiente del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico

Mutrikuko (Gipuzkoa) udalerrian, Deba ibaiaren ezker aldean, Casacampo inguruan, jabari publikoko hiru mila hirurehun eta berrogeita lau (3.344) metro karratu (3.344) okupatzeko baimena emateko baldintzak eta, interpretaziozko begiratoki bat jartzeko eta ingurumena kudeatzeko lanak egiteko.

9.- ESKARI ETA GALDERAK.

Gilen Garcia: Ba al dago eskaera edo galderarik?

Pedro Bengoetxea: Nire galdera hemendik legealdiaren amaierara arte jarraituko duzuen egutegiari buruzkoa da, egutegiren bat baduzue behintzat.

Gilen Garcia: EAJren aldetik ba al daukazue zerbait?

Iñigo Cambronero: Bai. Hilerraren leku altzeari buruz, jakin nahiko genuke ea ondo jarraitzen ari garen baimenei eta abar buruz bere egunean idatzi zen programa.

Enrique Salgado: Osion egiten ari diren obrak direla eta, horrek baldintzatuko al du etorkizunera begira, Osion jarduketaren bat egin nahi bada?

Gilen Garcia: Egutegiari buruz, zehazki ez daukagu ezer. Pentsatzen dut datorren hilabetean egin beharko dugun Osoko Bilkuran erabaki beharko dugula. Maiatzean, hauteskundeak datozela, kanpainan murgilduta egongo gara, eta hor ikusiko genuke apirileko akta onartzeko edo ez ohiko bat egin genezake maiatzaren hasieran edo erdialdera tarte horretan, jarduna pixka bata jaitsi egiten dela eta jardura administratiboa soilik mantentzen dela, eta gaur onartu dugun kreditu aldaketako partidak horiek kudeatu, eta Udaleko kontu guztiak bideratuta uztea. Saiatzen ari gara udako kontuak ere prest uzten hurrengo udal gobernuak gauzak horiek bidertuta izan dadin.

por las que podría otorgarse la concesión de ocupación de tres mil trescientos cuarenta y cuatro (3.344) metros cuadrados de dominio público marítimo-terrestre, con destino a la colocación de un mirador interpretativo y realización de trabajos de gestión ambiental en la zona de Casacampo, en la margen izquierda de la ría del Deba, en el TM de Mutriku (Gipuzkoa)

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Gilen Garcia: ¿Hay algún ruego o pregunta?

Pedro Bengoetxea: Mi pregunta es sobre el calendario que vais a seguir de aquí al final de la legislatura, si es que tenéis algún calendario.

Gilen Garcia: Por parte de EAJ, ¿tenéis algún ruego o pregunta?

Iñigo Cambronero: Si. Sobre el traslado del cementerio queríamos saber sobre el programa que en su día se redactó, a nivel de permisos, etc., si estamos siguiendo bien esas pautas.

Enrique Salgado: En relación con las obras que se están haciendo en Osio, ¿eso no condicionará de cara al futuro, si en Osio se quiere hacer alguna actuación?

Gilen Garcia: Sobre el calendario, no tenemos nada concretado. Pienso que en el Pleno que deberemos celebrar el próximo mes tendremos que decidirlo. En el mes de mayo, con la celebración de las elecciones, estaremos inmersos en campaña, y habrá que ver si celebramos un Pleno extraordinario a principios o mediados de mayo para aprobar el acta de abril o lo que resulte. La actividad baja un poco y que sólo se mantiene la actividad administrativa, y habrá que gestionar las partidas de la modificación de crédito que hoy hemos aprobado, y canalizar todos los asuntos del Ayuntamiento. Estamos intentando dejar también preparados todos los asuntos de verano para que sean canalizados por el próximo gobierno municipal.



DEBAKO UDALA

Hortaz, zehaztuko dugu, baina apirilean ohiko bilkura egingo dugu, eta agian maiatzean ez ohiko bilkuraren bat egin beharko dugu aktak onartzeko edo horrelako zerbaiterako, eta baita Batzordetan ere informazioa emateko eta, nolabait, agintaldia ixte aldera, Hirigintzako Batzorde Mistoan egin genuen bezala.

Hilerriaren trasladoari buruz, orain ez daukat datak buruan, baina Batzordean komentatu zen bezala familiendako aurreikusi ziren kolunbario horiek instalatzea falta zen edozein prozedura hasteko, eta behin instalatua baldintza horiek izango genituzke, eta orain bakarrik litzateke prozedurari ekitea.

Eta azkenik, Osio garapena onartuko den hirigintza planaren arabera izango da, eta orain egien ari garena ez dauka zergatik eraginik zuzena izan behar, eta etorkizuna baldintzatu.

Bestalde, Elizburuko etxebizitza tasatuei dagokionez, behin betiko zerrendak argitaratuko dira astelehenean, eta behin zerrendak argitaratuta, aurrekoan egin zen bezala, Grupo Eibarrek informazioa emango du etxebizitza horien ezaugarrien inguruan zozketari begira zerrendako pertsona horiek bere lehentasunak nola markatu jakin dezaten.

Eta horren baitan, prozedura kontu bat, zozketaren data da. Nik behintzat uste dut, gardentasunagatik, hobe dela zozketa hauteskundeen ostean egitea. Izan ere, datorren astetik aurrera ulertzen da proiektuen berri edo gobernuaren jardunaren nolabaiteko publizitatea ezin dela egin, eta nahiz eta, horrela erabakiz gero, zozketa beste data batean egin ahalko genuela, ikusita hauteskundeak datozela eta dena nahastu egiten dela, iruditzen zait txukunagoa izango dela zozketa hauteskundeen ostean egitea,

Entonces, ya lo iremos concretando, pero en abril celebraremos una sesión ordinaria, y en mayo quizás tengamos que hacer alguna sesión extraordinaria para aprobar las actas o algo así, y también en las Comisiones para informar y para cerrar la legislatura, como lo hicimos en la Comisión Mixta de Urbanismo.

Sobre el traslado del cementerio, ahora no tengo fechas en mente, pero tal y como se comentó en la Comisión para iniciar cualquier procedimiento faltaba la instalación de esos columbarios previstos para las familias, y una vez instalados, tendríamos esas condiciones, y ahora sólo sería iniciar del procedimiento.

Y por último, el desarrollo de Osio dependerá del plan urbanístico que se apruebe, y lo que ahora estamos haciendo no tiene por qué afectar directamente ni condicionar el futuro.

Por otra parte, en relación con las viviendas tasadas de Elizburu, el lunes se publicarán las listas definitivas, y una vez publicadas las listas, tal y como se hizo anteriormente, Grupo Eibar informará sobre las características de estas viviendas para que las personas de la lista puedan marcar sus preferencias de cara al sorteo.

Una cuestión de procedimiento es la fecha del sorteo. Yo creo que, por transparencia, es mejor hacer el sorteo después de las elecciones. Y es que, a partir de la semana que viene, se entiende que no se puede dar información sobre los proyectos, ni hacer publicidad sobre las actuaciones del gobierno, y, aunque si así se decidiera se podría hacer el sorteo en otra fecha, a la vista de que vienen las elecciones y que todo termina mezclándose, creo que será más oportuno hacer el sorteo después de las

hau da, udal gobernu berriak egitea.

Erabakia guri dagokigu, baina partekatu nahi nuen zuekin eta eskertuko nuke zuen iritzia edo zer iruditzen zaizuen azaltzea.

Pedro Bengoetxea: Ondo iruditzen zait. Azkenean, gu ibili gara presa sartzen eta, hor pertsonak horren zain daudela kontuan hartuta, nahi baduzue lehenago egin, ba ados, baina zuzena iruditzen zaigu ere hauteskundeen ostean egitea.

Iñigo Cambronero: Guri zuzena iruditzen zaigu. Horren atzean pertsonak daude, familiak daude, bizitzak daude, zain daudenak, eta prozesua atzeratu egingo da, baina zuzena iruditzen zaigu, prozesuaren onerako eta garbiagoa izan dadin.

Gilen Garcia: Zuen iritzia jasota, proposamena ondo ikusten duzue, ba horrela egingo dugu.

Mila esker, eta horrenbestez amaitutzat joko dugu gaurko Osoko Bilkura.

Beste aztergairik ez dagoenez, 19:35ean amaitzen da Osoko Bilkura

Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria



elecciones, es decir, que lo haga el nuevo gobierno municipal.

La decisión nos corresponde nosotros, pero quería compartirla con vosotros, y os agradecería expusierais vuestra opinión o explicarais lo que os parece.

Pedro Bengoetxea: Me parece bien. Al final, nosotros hemos estado metiendo prisa y, teniendo en cuenta que ahí hay personas que están esperando, si queréis hacerlo antes, pues de acuerdo, pero también nos parece correcto hacerlo después de las elecciones.

Iñigo Cambronero: A nosotros nos parece correcto. Detrás de esto hay personas, hay familias, hay vidas que están esperando, y se va retrasar el proceso, pero nos parece correcto por el bien del proceso y para que sea más limpio.

Gilen Garcia: Recibida vuestra opinión, como veis bien la propuesta, pues así lo haremos.

Muchas gracias, y con esto daremos por finalizado el Pleno de hoy.

Sin más temas que tratar, a las 19:35 horas, finaliza el Pleno.

Gilen Garcia Boyra
Alkatea

